

2019/03/22, 16:00

2019/03/22

**KOD.:** 2216

A103 - A104 - A105 - A106 - A107 - A108 - A109 - A110 - A119

**LEHEN ARIKETA**  
**LEHEN PROBA**

**Denbora, gehienez: 90 minutu.**  
**Galderak: 90.**

EREDUA:	<b>D</b>
---------	----------

Ez ireki esan arte.

Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.

Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.

Gogoan izan:

- Asmatuak: 1,00
- Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.

Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.

Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.

Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.

Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

**Eskerrik asko zure laguntzagarik**

- 1.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea: Aukeratu OKERREKO erantzuna.  
Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek izango dira toki-erakundeak:
  - a. Arabako lurralde historikoko kuadrillak.
  - b. Udalerria.
  - c. Kontzejuak.
  - d. Probintzia.
  
- 2.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera: udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoa eta gobernu-ekintza lege honetan ezarritakoaren eta honako printzipio hauen arabera garatuko da: Aukeratu OKERREKO erantzuna
  - a. Finantza-egonkortasunaren printzipioa.
  - b. Autokudeaketaren printzipioa.
  - c. Tokiko ekintza publikoaren efikazia- eta efizientzia-printzipioa, halako moldez non ekintza hori bideratu dadin herritarren beharrianak antzeman, artatu eta asebetetzera, erakunde horien politikak eta zerbitzuak planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko prozesuak era ordenatuan egitea bermatuko duten tresnen bitartez.
  - d. Erantzun guztiak zuzenak dira
  
- 3.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera: Aukeratu ERANTZUN ZUZENA EDO OSOENA
  - a. Udalerriek eskubidea izango dute aktiboki parte hartzeko euskal erakunde eskudunen edozein gobernu-mailatako zeinahi arau lantzeko prozesuetan.
  - b. Udalerriek eskubidea izango dute aktiboki parte hartzeko euskal erakunde eskudunen edozein gobernu-mailatako arauak lantzeko prozesuetan, arauak zuzenean eragiten badie udalerrien eskumen propioei.
  - c. Udalerriek eskubidea izango dute aktiboki parte hartzeko edozein gobernu-mailatako arauak lantzeko prozesuetan, arauak zuzenean eragiten badie udalerrien eskumen propioei.
  - d. Udalerriek aktiboki parte hartzeko eskubide hori euskal erakunde eskudunek abiarazi nahi dituzten eta toki-autonomiari eragiten dioten edo eragin diezaioketen programa, proiektu, plan eta politika publikoetarako bakarrik da.
  
- 4.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera: Aukera ezazu OKERREKOA
  - a. Udalek autonomia osoa dute beren intereseko edozein gai antolatu eta kudeatzeko.
  - b. Udalerria da herritarrek tokiko gai publikoetan parte hartzeko duten bidea.
  - c. Udalen jarduera arauemaile eta betearazlearen berariazko helburua izango da herritarren bizi-kalitatea hobetzea.
  - d. Udal-autonomiak barne hartzen du, betiere, interes publikoak antolatzea udalaren berezko esparruan, bere gobernu-organoak eta administrazioa antolatzea eta kudeatzea, bere lurraldea antolatzea, tokiko zerbitzuak arautzea eta ematea, ekimen ekonomikoa, bere zerbitzupeko langileen inguruko politika eta kudeaketa, ondarea eta diru-bilketa, eta orobat bere gasunen baliabideak administratzea eta erabiltzea.
  
- 5.- Jurisdikzio-organoen eskumena Euskal Autonomia Erkidegoan, hauetara iristen da:
  - a. Arlo zibilean, auzialdi eta maila guztietara, baita kasazio-errekurtsoetara eta berrikusteko errekurtsoetara ere, Euskadik berezkoa duen Foru Zuzenbide Zibileko gaietan.
  - b. Zigor- eta lan-arloetan, auzialdi eta gradu guztietara, kasazio- eta berrikusteko errekurtsoak izan ezik.
  - c. Administrazioarekiko auzien arloan, auzialdi eta gradu guztietara, Euskal Herriko administrazioak emandako egintzak baldin badira, Autonomia Erkidegoak legegintzarako bakarreko eskumena duen gaietan; eta lehen auzialdira, berriz, Estatuko administrazioak emandako egintzak direnean.
  - d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

6.- Toki Araubidearen Oinarrien Legearen arabera, toki-erakundeen ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko, espedientea behar da, salbu eta:

- a. ondare-ondasunak erabilera edo zerbitzu publiko bati 20 urte baino gehiagorako atxikitzeko.
- b. ondare-ondasunak erabilera edo zerbitzu publiko bati 25 urte baino gehiagorako atxikitzeko.
- c. ondare-ondasunak erabilera edo zerbitzu publiko bati 40 urte baino gehiagorako atxikitzeko.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

7.- Eusko Legebiltzarreko kideak ukiezinak izango dira beren kargualdian emandako boto zein iritziengatik. Aukeratu OKERREKO erantzuna

- a. Beren kargualdian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Autonomia Erkidegoaren lur-esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik eta, betiere, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea. Euskadiko Erkidegoko lurralde-esparrutik kanpo, Auzitegi Goreneko Zigor arloko Salan argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.
- b. Beren kargualdian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Autonomia Erkidegoaren lur-esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik eta, betiere, Auzitegi Goreneko Zigor arloko Salari dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea.
- c. Beren kargualdian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Autonomia Erkidegoaren lur-esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik eta, betiere, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea. Euskadiko Erkidegoko lurralde-esparrutik kanpo, Auzitegi Nazionalean argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.
- d. Beren kargualdian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Autonomia Erkidegoaren lur-esparruan egindako delituengatik inongo kasutan, eta, betiere, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea. Euskadiko Erkidegoko lurralde-esparrutik kanpo, Auzitegi Goreneko Zigor arloko Salan argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.

8.- Toki-eskumeneko zerbitzu publikoak modu jasangarri eta eraginkorrean kudeatu beharko dira; honela: Adierazi OKERREKO erantzuna

- a. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren bidez.
- b. Entitatearen beraren kudeaketaren bidez.
- c. Tokiko enpresa-entitate publiko baten bidez.
- d. Titularitate publikoko kapital soziala duen merkataritza-sozietate lokal baten bidez.

9.- Toki-korporazioen erabakien arduradunak dira:

- a. bertan aldeko botoa eman duten kideak.
- b. kide guztiak, beren botoa edozein izan delarik ere.
- c. alkatea bakarrik, korporazioko lehendakaria denez.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

10.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluaren aplikazio-eremua hau da:

- a. 250.000 biztanletik gorako udalerriak.
- b. Probintzia-hiriburuak, hiriburu autonomikoak eta erakunde autonomikoen egoitza direnak.
- c. 75.000 biztanletik gorako udalerriak, zirkunstantzia ekonomiko, sozial, historiko edo kultural bereziak dituztenak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

11.- Aurrekontuak onestea honen eskumena da:

- a. Ogasun Batzordea
- b. Osoko bilkura
- c. Tokiko Gobernu Batzarra
- d. Alkatea

12.- Konstituzioaren 22. artikulua babesean eraturako elkarteei gagozkielarik:

- a. Erregistroan inskribatu behar dira, publizitate-ondoreetarako bakarrik.
- b. Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun-ondoreetarako bakarrik.
- c. Ez da nahitaezkoa inskribatzea.
- d. Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun- eta publizitate-ondoreetarako.

13.- Hemen dago jasota hezkuntzarako eskubidea:

- a. Konstituzioaren 25. artikuluan.
- b. Konstituzioaren 27. artikuluan.
- c. Konstituzioaren 16. artikuluan.
- d. Konstituzioaren 14. artikuluan.

14.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/2085 Legearen arabera: Adierazi ERANTZUN ZUZENA EDO OSOENA

- a. Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero aurrekontu-plantilla onestea, aurrekontuaren bitartez.
- b. Toki-korporazio bakoitzari dagokio agintaldi bakoitzaren hasieran aurrekontu-plantilla onestea, aurrekontuaren bitartez.
- c. Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero lanpostuen zerrenda onestea, aurrekontuaren bitartez.
- d. Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero lanpostuen zerrenda onestea.

15.- Enplegatu publikoak honela sailkatzen dira:

- a. Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
- b. Lan-kontratuko langileak, finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak.
- c. Behin-behineko langileak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

16.- Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren arabera, enplegatu publikoen eskubideak dira:

- a. Karrerako funtzionario-izaeraren mugiezintasuna.
- b. Lanbide-elkarteetara askatasunez biltzea.
- c. Lanean diharduen atalari esleiturako helburuak lortzeko lanetan parte hartzekoa, eta arduradunengandik egin beharreko zereginen berri jasotzekoa.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

17.- Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren arabera, askatasun sindikalerako eskubidea:

- a. banako eskubidea da, kolektiboki baliaten dena.
- b. eskubide kolektiboa da, banaka baliatzen dena.
- c. banako eskubidea da, banaka baliaten dena.
- d. eskubide kolektiboa da, kolektiboki baliaten dena.

18.- Enplegatu publikoen jokabide-printzipioak hemen daude araututa:

- a. Konstituzioaren 103. artikulua.
- b. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 54. artikulua, 5/2015 Legea.
- c. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 47. artikulua, 5/2015 Legea.
- d. Langileen Estatutuaren 25. artikulua.

19.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, nahitaezko gaitasun-probez gain lehiakideen merezimenduen balioespena egiten delarik hautaketa-prozesuetan...

- a. puntuazio osoaren ehuneko 30etik beherako puntuazioa bakarrik eman ahal izango da, balioespen horretan.
- b. gehienez puntuazio osoaren ehuneko 45eko puntuazioa eman ahal izango da, balioespen horretan.
- c. neurri batera arteko puntuazioa baino ezingo da eman, eta ez du inoiz ere horrek bakarrik hautaketa-prozesuaren emaitza erabakiko.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

20.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, funtzionario-izaerari uko egitea: Aukeratu OKERREKO erantzuna.

- a. Idatziz adierazi beharko da.
- b. Berariaz onartu beharko du administrazioak.
- c. Administrazioak ezingo du uko egitea onartu funtzionarioa diziplina-dosier bati lotuta badago edo, delituren bat egin duelakoan, auzipetzeko autoa nahiz ahozko epaiketa hasteko autoa eman bada beraren kontra.
- d. Funtzionario-izaerari uko egiteak desgaitu egiten du berriro administrazio publikoan sartu ahal izateko.

21.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, enplegatu publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute:

- a. Objektibotasuna, osotasuna eta neutraltasuna.
- a. Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa.
- b. Kulturaren eta ingurumenaren sustapena.
- c. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

22.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, hautaketa-sistemei gagozkielarik,... Aukera OKERRA adierazi

- a. Oposizioa, lehiaketa eta oposizio-lehiaketa izango dira karrerako funtzionarioak hautatzeko sistema orokorrak.
- b. Herri Administrazioek lankidetzeta-moduak negoziatu ahal izango dituzte hitzarmen kolektiboaren eremuaren barruan, erakunde sindikalek hautaketa-prozesuen garapenean izan beharreko jarduna ezartzeko.
- c. Hautaketa-organoek izangaiak karrerako funtzionario izatera irits daitezen proposatutako onartuen kopurua ezin izango da deialdiko plaza-kopurua baino handiagoa izan, deialdian bertan aurkakorik jasotzen ez bada behintzat.
- a. Probak osatu egin ahal izango dira, proba psikoteknikoak eginda.

23.- Konstituzioaren 35. artikuluan jasota dagoen lanerako eskubideak hauek barne hartzen ditu:

- a. Lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzea, ordainsari nahikoa izatea eta laneko negoziazio kolektiborako eskubidea.
- b. Lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzea eta lanean gora egitea, eta norberaren eta familiaren beharrianak asetzeko adinako ordainsaria.
- c. Lanean arrazoi laboralengatik diskriminatua ez izatea eta oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa jasotzea.
- d. Laneko osasunaren babesa eta ordainsari nahikoa.

24.- Enplegatu publikoen printzipio etikoak dira:

- a. Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioetara moldatzea, bai lanean diharduteneko Administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.
- b. Lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua dagoenean, betebeharrak ekonomikoki ez hartzea, eta ez parte hartzea pertsona nahiz erakundeekin finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharrak edo negozio juridikoetan.
- c. Pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesede-traturik ez onartzea, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

25.- Justizia:

- a. herriari dario, eta Erregearen izenean administratzen da.
- b. botere judiziala osatzen duten epaile eta magistratu independente, mugiezin eta erantzuleek administratzen dute.
- c. legearen menpe besterik ez dauden epaile eta magistratuek administratzen dute.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

26.- 1978ko Konstituzioaren arabera: Adierazi OKERREKO erantzuna

- a. Botere publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute, legeen betetzea berma dadin.
- b. Botere publikoek bermatzen dute gizabanako guztien hezkuntza-eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorraren bidez, sektore interesdun guztien parte-hartze eragingarriarekin eta ikastetxeak sortuz.
- c. Oinarritzko hezkuntza nahitaezko eta doakoa da.
- d. Irakasleek, gurasoek eta, hala denean, ikasleek ere, parte hartuko dute ikastetxe guztien kontrol eta kudeaketan, legeak ezartzen dituen mugekin.

27.- Egoitzaren bortxaezintasuna hemen dago jasota:

- a. Konstituzioaren 14. artikulua.
- b. Konstituzioaren 18. artikulua.
- c. Konstituzioaren 12. artikulua.
- d. Ez dago jasota, bere horretan, Espainiako Konstituzioan.

28.- Adieraz ezazu hauetatik zein ez den Konstituzioan jasota dagoen herritarren betebeharrak edo eskubide bat:

- a. Zerbitzu zibila ezarri ahal izango da interes orokorreko helburuak betetzeko.
- b. Enpresa-askatasuna aitortzen da merkatu-ekonomiaren eremuan. Botere publikoek bermatu eta babesten dituzte haren egikaritzak eta ekoizgarritasunaren defentsa, ekonomia orokorraren eskakizunei kasu eginez, eta, hala denean, plangintza kontuan izanik.
- c. Aisialdi eta oporraldiak izateko eskubidea aitortzen da.
- d. Interes orokorreko helburuetarako fundazio-eskubidea aitortzen da legearen arabera.

29.- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, hauek sartzen dira sektore publiko instituzionalean:

- a. Erakunde publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak oro, administrazio publikoei lotuak edo haien menpeko direnak.
- b. Administrazio publikoei loturik edo haien mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak, betiere administrazio-ahalak baliatzen dituztenean. Lege honek haiei buruz espezifikoki xedatzen duenaren mende egongo dira.
- c. Unibertsitate publikoak, zeinek beren araudi espezifikoki jarraituko baitiote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 30.- Ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan zehaztutakoa izango da.
- Epe hori ezin da bi hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.
  - Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.
  - Epe hori ezin da hiru hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.
  - Ez dago epe jakinik.
- 31.- Ebazpen espresurik eza ofizios hasitako prozeduretan.
- Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunei ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, iraungi egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 95. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.
  - Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunei ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, preskribatu egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura preskribatu dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 95. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.
  - Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunei ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, preskribatu egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, horiek ebatzi arte.
  - Inolaz ere ezin da gertatu ebazpen espresurik ez izatea.
- 32.- Egintzaren efikazia geroratu egingo da... Adierazi OKERREKOA
- egintzaren edukiak hala eskatzen badu.
  - jakinarazpenaren mende badago.
  - argitalpenaren mende ez badago.
  - goragoko onespeneraren mende badago.
- 33.- Egunetan adierazitako epeak zenbatzeko:
- lehen eguna egintza jakinarazten denaren biharamuna izango da.
  - lehen eguna egintza argitaratzen denaren biharamuna izango da.
  - lehen eguna administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten denaren biharamuna izango da.
  - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 34.- Interes publikoaren arrazoiak direla eta,... ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA
- prozedura presaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizios edo interesdunak eskaturik. Horrelakoetan, erdira murriztuko dira prozedura arruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekursoak aurkeztekoak.
  - prozedura presaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizios edo interesdunak eskaturik. Horrelakoetan, herenera murriztuko dira prozedura arruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekursoak aurkeztekoak.
  - prozedura presaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizios edo interesdunak eskaturik. Horrelakoetan, bista batera murriztuko dira prozedura arruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekursoak aurkeztekoak.
  - Ez dago epeak inoiz murrizterik, ezta presaz izapidetu beharra dagoenean ere.

35.- Aukeratu ZUZENA EDO OSOENA:

- a. Jakinarazpena hamabost eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik zenbatuta. Jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtsor jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsor baliatzeko aukera.
- b. Jakinarazpena hamabost eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik zenbatuta. Jakinarazpenean, ebazpenaren laburpen motz bat jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtsor jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsor baliatzeko aukera.
- c. Jakinarazpena hamar eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik zenbatuta. Jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtsor jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsor baliatzeko aukera.
- d. Jakinarazpena hamar egun naturaleko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik zenbatuta. Jakinarazpenean, ebazpenaren laburpen motz bat jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtsor jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsor baliatzeko aukera.

36.- Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena...

- a. azkena egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.
- b. interesdunak berariaz adierazitako lekuan egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.
- c. lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.
- d. bitarteko elektronikoz egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.

37.- Deuseztagarriak dira administrazio-egintzak...

- a. ordenamendu juridikoaren edozein arau hausten dutelarik, aginte-desbideratzea barne.
- b. ordenamendu juridikoaren edozein arau hausten dutelarik, aginte-desbideratzea salbu.
- c. legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman direlarik.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

38.- Administrazio-xedapen orokorren aurka...

- a. ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.
- b. gora jotzeko errekurtsora aurkeztu ahal izango da.
- c. berraztertzeko errekurtsora aurkeztu ahal izango da.
- d. apelazio-errekurtsora aurkeztu ahal izango da.

39.- Adierazi erantzun zuzena edo osoena:

- a. Errekurtsor-jartzaileak errekurtsori okerreko kalifikazioa jartzeak eragotzi egingo du hura izapidetzea.
- b. Errekurtsor-jartzaileak errekurtsori okerreko kalifikazioa jartzea edo ez jartzea ez da eragozpen izango hura izapidetzeko, haren benetako izaera argi ageri ez bada ere.
- c. Errekurtsor-jartzaileak errekurtsori okerreko kalifikazioa jartzea edo ez jartzea ez da eragozpen izango hura izapidetzeko, argi ageri bada haren benetako izaera.
- d. Errekurtsor-jartzaileak errekurtsori okerreko kalifikazioa jartzea edo ez jartzea ez da eragozpen izango errekurtsora izapidetzeko.



40.- Gora jotzeko errekurtsua jartzeko epea hau izango da:

- a. hilabetekoa, egintza espresua denean.
- b. bi hilabetekoa, egintza espresua denean.
- c. hiru hilabetekoa.
- d. gaiaren mende dago.

41.- Berraztertze errekurtsuaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hau izango da:

- a. hilabetekoa
- b. bi hilabetekoa
- c. hiru hilabetekoa
- d. Ez dago eperik.

42.- Berrikuspen-errekurtsu berezia —egintza ematean egitezko okerren bat gertatu bada, espedienteari erantsitako dokumentuei lotua—, epe honetan jarriko da:

- a. Ebazpen aurkaratua jakinarazi ondorengo lau urteko epean.
- b. Ebazpen aurkaratua jakinarazi ondorengo bi urteko epean.
- c. Ebazpen aurkaratua jakinarazi ondorengo hiru hilabeteko epean.
- d. Hiru hilabeteko epean, agirien berri izaten denetik edota epaia irmoa denetik hasita.

43.- Errekurtsuak ez onartzeko arrazoiak dira:

- a. Errekurtsuak funtsik ez izatea, nabarmen.
- b. Errekurtsua jartzeko epea igaro izana.
- c. Errekurtsorik ezin jarri zaion egintza bat izatea.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

44.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako erakunde hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a. Estatuko Administrazio Orokorra.
- b. Autonomia-erkidegoetako administrazioak.
- c. Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

45.- Administrazio-bidetik irmoak diren egintzen aurka, berrikuspen-errekurtsu berezia aurkez dakioke egintza horiek eman zituen administrazio-organoari, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a. Gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzea, ebazpen errekurrituaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere.
- b. Prebarikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokaera zigorgarri baten ondorioz ematea ebazpena, eta epai judicial irmo batek hala deklaratzeko.
- c. Egintza ematean egitezko okerren bat gertatzea, espedienteari erantsitako dokumentuei lotua.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

46.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako erakunde hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a. Organismo autonomoak, unibertsitate publikoak eta agintari administratibo independenteak.
- b. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateak.
- c. Euskadiko foru aldundi eta batzar nagusiak, beren kontratazio-jarduerari dagokionez.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

47.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira botere adjudikatzailatzat:

- a. Administrazio publikoak.
- b. Fundazio publikoak.
- c. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

48.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira botere adjudikatzailetzat:

- a. Fundazio publikoak.
- b. Alderdi politikoak, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko 8/2007 Lege Organikoaren 1. artikuluan definitutako zentzuan.
- c. Apirilaren 1eko 19/1977 Legeak aipatzen dituen enpresa-erakundeak eta profesionalen elkarteak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

49.- Sektore Publikoaren Kontratuak buruzko Legearen esparrutik kanpo geratzen da: Adierazi OKERREKO erantzuna

- a. Funtzionario publikoen zerbitzu-harremanak eta laneko legedian araututako kontratuak.
- b. Jabari publikoko ondasunen gaineko baimen eta emakidak.
- c. Administrazio publikoek egindako salerosketa-kontratuak.
- d. Estatuak beste estatu batzuekin edo nazioarteko zuzenbidearen peko beste subjektu batzuekin egiten dituen akordioak.

50.- Obra-kontratuak dira honako helburu hauetakoren bat dutenak:

- a. Obra bat egitea, bereizirik edo proiektuaren idazketarekin batera, edo I. eranskinean aipatutako lanetatik bakarren bat egitea.
- b. Obra-motan edo proiektuan eragin erabakigarria duen sektore publikoko entitate kontratatzaileak finkatutako betebeharrak betetzen dituen obra bat egitea, edozein bitartekoren bidez.
- c. Halaber, obratzat joko dira lurraren edo haren hegalaren forma nahiz funtsa aldatzen duten lanak, edo ingurune fisiko edo naturala hobetzen dutenak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

51.- Erregulazio harmonizatuaren mende daude hornidura-kontratuak balio zenbatetsi hau edo handiagoa dutelarik:

- a. 140.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatutako kontratuak baldin badira.
- b. 144.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatutako kontratuak baldin badira.
- c. 145.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatutako kontratuak baldin badira.
- d. 100.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatutako kontratuak baldin badira.

52.- Produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea objektutzat duten kontratuak...

- a. hornidura-kontratuak dira.
- b. zerbitzu-kontratuak dira.
- c. errentamendu-kontratuak dira.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

53.- Sektore publikoko entitateek egiten dituzten kontratuak formalizatzeko dokumentuek, aipamen hauek jaso beharko dituzte nahitaez, salbu eta lehendik baldintza-agirietan jasota badaude:

- a. Alderdiak zein diren.
- b. Hala egokitzu gero, prezioa zer aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.
- c. Zer kasutan alda daitekeen, hala badagokio.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

54.- Sektore publikoarekin kontratatzeke debekuak hemen daude araututa:

- a. Sektore Publikoko Kontratuak Legearen 71. artikuluan.
- b. Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 71. artikulua.
- c. Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 71. artikulua.
- d. Gardentasuna Legearen 71 artikuluan.

55.- Sektore publikoko erakundeek egiten dituzten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuak honen bitartez arautzen dira:

- a. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean jasotzen den berariazko legedia.
- b. Administrazio-zuzenbideko arauak.
- c. Zuzenbide pribatuko arauak.
- d. Kontratuaren zenbatekoaren mende dago.

56.- Erregulazio harmonizatuaren mende daude obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak balio zenbatetsi hau edo handiagoa dutelarik:

- a. 5.548.000 euro
- b. 6.548.000 euro
- c. 10.548.000 euro
- d. 2.548.000 euro

57.- Administrazioak ahoz kontratatu ahal izango du...

- a. Beti.
- b. Inoiz ez; berariaz debekatuta dago.
- c. Inoiz ez, non eta kontratua ez den larrialdi-kasukoa.
- d. Inoiz ez, non eta kontratua ez den apartekoa.

58.- Kode Zibilaren 5. artikularen arabera:

- a. Epeak hilabeteetan edo urteetan finkaturik badaude, epeak datatik datara zenbatuko dira.
- b. Epeen zenbaketan ez dira egun baliogabeak bazterzen.
- c. Epeak egunetan finkatu badira zenbaketa egun zehatz batetik hasita, egun hori zenbaketatik kanpo geratuko da.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

59.- Zigor-legeak, polizia-legeak eta herri-segurtasuneko legeak bete beharrekoak dira...

- a. Espainiar nazionalitatea duten pertsonentzat.
- b. Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonentzat.
- c. Espainiako lurraldean dauden pertsonentzat.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

60.- Pertsona fisikoen lege pertsonala hemen dago araututa:

- a. Kode Zibilaren 9. artikulua.
- b. Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 9. artikulua.
- c. Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 9. artikulua.
- d. Konstituzioaren 9. artikulua.

61.- Ezkontzaren ondorioak honako honek arautuko ditu:

- a. Senarraren lege pertsonalak.
- b. Emaztearen lege pertsonalak.
- c. Senarraren edo emaztearen lege pertsonalak, bien artean aukeratuta.
- d. Ezkontideen lege pertsonal erkideak.

62.- Udalerrien autonomia hemen bermatzen da:

- a. Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua.
- b. Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 140. artikulua.
- c. Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 140. artikulua.
- d. Toki Ogasunen Legearen 140. artikulua.

63.- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, lan arriskuen aurrean babesa izateko eskubidea...

- langilearen eskubide bat da.
- enpresaburuaren betebeharrak bat da.
- administrazio publikoek beren zerbitzupean dauden langileekin duten betebeharrak bat da.
- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

64.- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, banakako babes-ekipamenduak erabili beharko dira...

- beti eta kasu guztietan.
- arriskuak nahiko mugatu edo saihestu ezin direnean.
- arduradunak agintzen duenean.
- Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

65.- Laneko arriskuen prebentzioaren arloan langileek dituzten betebeharrak hemen daude jasota:

- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 29. artikulua.
- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 14. artikulua.
- Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren 14. artikulua.
- Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 14. artikulua.

66.- Langileek laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak ez betetzea...

- diziplina-hutsegitez joko da.
- delitutzat joko da.
- ez du eragin pertsonalik.
- ondorio ekonomikoak nominatik kendu ahal izango dira.

67.- 1001 langiletik 2000ra bitarteko enpresetan, prebentzio-ordezkarien kopurua hau da:

- 7
- 5
- 8
- 6

68.- Prebentzio-ordezkariek eskumen hauek izango dituzte: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- Enpresako zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, produktibitatea hobetzeko.
- Enpresako zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, prebentzio-jarduna hobetzeko.
- Langileen lankidetzat bultzatu eta sustatzea, lan-arriskuen prebentziorako araudia betetzeari dagokionez.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia betetzen den zaindu eta kontrolatzea.

69.- Laneko arriskuen prebentzioko ordezkariek hemen daude araututa:

- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 35. artikulua.
- Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 35. artikulua.
- Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren 35. artikulua.
- Espainiako Konstituzioaren 35. artikuluan.

70.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legea hauei aplikatuko zaie:

- Euskadiko toki-administrazioa.
- Foru-administrazioa.
- Autonomia Erkidegoko Administrazioa
- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

71.- Gizon eta Emakumeen berdintasunerako legearen ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela esan ahal izango da sexu bakoitzak...

- a. % 50eko ordezkaritza badu.
- b. gutxienez, % 40ko ordezkaritza badu.
- c. gutxienez, % 30eko ordezkaritza badu.
- d. Organo-motaren mende egongo da.

72.- Gizon eta Emakumeen berdintasunerako legeko printzipio orokorra da:

- a. Tratu-berdintasuna.
- b. Dibertsitatearen errespetua.
- c. Diferentziaren errespetua.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

73.- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia integratze aldera,...

- a. autonomia-erkidegoko administrazioaren eskumena da.
- b. printzipio orokor bat da.
- c. legearen xede bat da.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

74.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 1. artikulua arabera, hau da beraren helburua:

- a. jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea.
- b. jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea.
- c. arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

75.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen eremu subjektiboa hau da: **ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA**

- a. Errege Etxea, Diputatuen Kongresua, Senatua, Konstituzio Auzitegia eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
- b. Espainiako Bankua.
- c. Merkataritza-sozietateak, artikulua honetako entitateek 100eko 50 baino gutxiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- d. Unibertsitate publikoak.

76.- Informazioa eskuratzeko baimena emateko edo ez emateko ebazpena, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, epe honetan jakinarazi beharko zaio eskatzaileari:

- a. Gehienez hilabeteko epean.
- b. Gutxienez hilabeteko epean.
- c. Gehienez hiru hilabeteko epean.
- d. Ez dago eperik.

77.- Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legearen arabera, publizitate aktiboari gagozkiolarik: **ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA**

- a. Aldian-aldean eta etengabe —eskura dituzten bitartekoak baliatuz— herritarrentzat interesgarri den informazio publiko oro emateko betebeharrak beren gain hartuko dituzte euskal toki-erakundeek.
- b. Gardentasun-betebeharrak, batez ere, informazio interesgarri guztia erakundearen webgunean edo egoitza elektronikoan argitaratuz beteko dira.
- c. Alde politiko-instituzionalari boterea baliatzeko erraztasunak ematea da publizitate aktiboaren arloko betebeharren helburua.
- d. Publizitate aktiboaren adierazpen grafikoak erabiliko dira, lehentasunez, publizitate aktiborako bitarteko gisa konplexutasun handiko gai eta datuen kasuan.

78.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babeserako 2016/679 Araudi Orokorraren 5. artikulua arabera, datu pertsonalak honelakoak izango dira:

- a. Egokiak, pertinenteak eta mugatuak.
- b. Zehatzak.
- c. Haien tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da, interesdunari dagokionez.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

79.- Zuzendaritza-organoetako titularrak izendatzeko eta kargutik kentzeko eskumena honek du:

- a. Osoko bilkura
- b. Tokiko Gobernu Batzarra
- c. Eledunen Batzarra
- d. Alkatea

80.- Herritarrei arreta emateko bitarteko hauek ditu Gasteizko Udalak:

- a. Herritarrei laguntzeko bulegoak.
- b. Telefono bidezko arreta
- c. Laguntza, on line.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

81.- Gasteizko Udaleko Genero Berdintasunerako IV. Planaren esparru-dokumentuak dira:

- a. Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2017ko Agenda.
- b. Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren ebaluazioaren emaitzak.
- c. Lantaldeek emandako informazioaren azterketa kualitatiboa.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

82.- Berdintasun-arloan egiten denaren gaineko kontu ematea printzipio honen barruan sartzen da:

- a. Behar adinako arreta
- b. Paradigma feminista
- c. Gardentasuna
- d. Berdintasun-politiken iraunkortasuna

83.- Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera, nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena...

- a. eskusiboa da
- b. garapen-eskumena da
- c. Estatuaren eskumena da
- d. gauzatze-eskumena da

84.- Euskadi ordezkatzeko duten senatariak izendatzea, Autonomia Estatutuaren arabera, honi dagokio:

- a. Eusko Jaurlaritza
- b. Lehendakaria
- c. Eusko Legebiltzarra
- d. Espainiako Gobernua

85.- Eusko Jaurlaritzako sailburuak honek aukeratzen ditu:

- a. Eusko Legebiltzarra
- b. Erregea
- c. Lehendakaria
- d. Lehendakariak aukeratu eta Erregeak izendatzen ditu

86.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/2085 Legearen arabera, printzipio hauei erantzun behar diete aurrekontu-plantillek:  
**ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA**

- a. Arrazionaltasuna
- b. Ekonomia
- c. Gardentasuna
- d. Eraginkortasuna

87.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/2085 Legearen arabera, Gasteizko Udalak, biztanle-kopuruaren arabera, honako hauek sar ditzake bere plantillan:

- a. 27 aholkulari, zinegotziak adina
- b. gutxienez 27 aholkulari
- c. gehienez 25 aholkulari
- d. udal taldeek beharrezkotzat jotzen dituztenak

88.- Hau da kirol-instalazio gehien dituen gizarte-etxea:

- a. Landatxo
- b. Hegoalde
- c. Ibaiondo
- d. Salburua

89.- Gimnasia-fosoa dago honetan:

- a. Mendizorrotzeko pabilioia
- b. San Andreseko kiroldegia
- c. Arriagako kiroldegia
- d. Ariznabarreko kiroldegia

90.- Komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak: Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a. Administrazioak bitarteko elektronikoak erabiliko ditu herritarrekiko komunikazioetan, baldin eta herritarrek eskatu edo berariaz onartzen badute.
- b. Edozein kasutan, herritarrek administrazioarekin zein modutan komunikatuko diren aukeratu ahalko dute.
- c. Bitarteko elektronikoen bidez egindako komunikazioak baliozkoak izateko, argi jasota geratu beharko du bai bidali bai jaso egin dela, datak ere jasota geratu beharko dira, bai eta komunikazioen eduki osoa ere, eta bidaltzaileak eta hartzaileak era fidagarrian identifikatuta egon beharko dute.
- d. Herritarrek egoitza elektronikoan eskaintzen zaizkion gai interesgarrietara harpidetza egitea komunikazioak jasotzeko baimenaren baliokidea izango da.